

Joxemiel Barandiaran eta biok. Liburu-laburpena

Joxemartin Apalategi Begiristainek Joxemiel Barandiaranekin elkarrizketan burututakoaz. Argitalpen berri baten aipamena.

Jaione Apalategi Begiristain / Jokin Apalategi Begiristain

Eusko Folklore aldizkaritik, kaleratuko duten 53. alerako gonbite bat jaso genuen Joxemartin Apalategi Begiristainen (JmAB) anai-arreba garen Jokinek eta Jaionek, Paulo Iztueta eta hiruron artean koordinatuz argitaratu berri dugun bere lan baten aipamena egiteko. Bi liburukietan agertu den Joxemartinen lanaren izenburua *Joxemiel Barandiaran eta biok*, da. 1981-1991 hamarkadan burututako lan bat da, Utriusque Vasconiaeren eskutik argitaratu dena, hain zuzen ere. Atsegin handiz eta alboratu ezin genuen gonbidapenari erantzunez, hementxe da gure idazki laburra.

Argitalpen berri honen jatorria, JmABek idatzita utzi zuen lan bilduma bat da, non, Barandiaranen bizitza luzeko azkeneko hamar urteetan, zehatz-mehatz, 1981ko uztailaren 1etik hasi eta 1991ko abenduaren 7ra bitarte, bien artean eduki zituzten elkarrizketak biltzen diren zazpiehun orritan zehar.

Elkarrizketen testuak zera agertzen digu besteak beste, Barandiaranek apaiz izatearekin bateginez nola uztartu zituen bere pentsamendu pertsonala eta ekintza zientifikoa; harreman sare ugaria dager, zentzu pertsonalean zein geografikoan ulertuta, Europa bere zabaltasunean hartuz, alegia; baita bizipozak eta bizipenak osatzen dutena ere.



Testuaren hizkera, garaian, ataundarren artean norma zenez, solaskideen arteko kategoriaren arabera, berorika, zuka, hika edo noka arituz idatzita dago. Behin eta berriz gogoratzekoa da, Barandiaranek laurogeita hamar urte pasatuak zeuzkala elkarrizketa hauek burutu zirenean.

Elkarrizketak berriz, lehenik Joxemiel eta Joxemartinen artekoak badira ere, beste askotan 45 urteren zehar (1936-1991) bere iloba eta zaindaria zuen Pilar Barandiaranekin lekukotasuna ere izan zuten, hiruren artean zegoen harreman bitxia, emozionala, intelektuala eta ataundarra ehuntzen zutelarik horrelakoetan. Behin baino gehiagotan, irakurleak topo egingo du bakoitzaren nortasun adierazpenak eta sentimendu gordeen artean ematen ziren urrutze eta gerturatzeekin, baita talka zein miresmen aitortpenekin ere.

Gauzak horrela, lan honetako testu eta testuinguruaren artean, borondatezko irakasle-ikasle onen artean ematen den harreman bihozbera bezain rol-jokoan oinarritutako sarea osatzen dela esango genuke, eta bere emaria erraz irakurtzeko, Joxemartin sekulako amu komunikatibo-etnolinguistiko-emozionala asmatzen saiatu zela azpimarratuko genuke.

Komeni da gogoraraztea ere, argitaratzen dugun testua, batz-beste, Joxemartinek orain duela 28 urte bukatu zuela. Eta itzal handiko pertsonen obra eta pentsamenduaren inguruko argitalpen berrietan gertatzen ohi den bezala, ezezagunak diren datuak aurkitzea espero izaten da eta hauxe da, hain juxtu, aipatzen ari garen lanaren kasuan aurkituko dutena lan honetan murgiltzen diren irakurleek, hamaika berri eta ustekabe, alegia. Julio Caro Baroja berak, JmAB egiten ari zen lan honen jakitun zen neurrian, hauxe idatzita utzi zuen: “maixuarengandik barne-barneko isil-mandatuak eta guzti jasotzen ari zela Joxemartin...”

Joxemiel Barandiaranek eta Joxemartinek harreman sakona izan zutela jakina da, baina Aristoteles eta Platonen harreman estuaz hitzegitean esaten den bezalaxe, zaila da ulertzea beraien arteko harremanaren izaera eta emankortasuna, erabat aitortua zen maixu-ikasle metaforatik so. *Joxemiel Barandiaran eta biok* lanean argi islatzen da, Joxemartinek umetatik hasi eta 1963tik aurrera Joxemiel Barandiaran zendu arte guztian izan zuten harreman akademikoaz gain, bata bestearekiko eraikitzen joan zirela adiskidetasun, begirune eta miresmen harremanak, sentimenduaren aldarte emozionalerik blai ageri di-relarik, askotan, arrazoizko biderei gain hartzeraino.

Baina Joxemiel Barandiaran eta JmABen harremanaz adierazi dugunari buruz, oraindik ere beste nabardura garrantzitsu bat egitea falta zaigu, eta are gehiago, dakigunean, lan honen burutzapena beste bat izango zela, hirugarren pertsona baten esku-hartzea izan ez balitza, hots, Pilar Barandiaran On Joxemielen ilobarena, hain zuzen ere. Pilar, berrogeita bost urtetan zehar, 1936tik 1991an hil zen arte, osabaren ondoan egon zen. Maixu batek eduki dezakeen ikaslerik hoberena izan zela esango genuke: jarraitzaile sutsua,

leiala, zintzoa. Pilar iloba, osaba baino hamazazpi urte geroago hil zen, 2008ko urtarrilaren 1ean, haren ondarearen itzala eta argia bikain ordezkatu zuelarik urte guzti horietan zehar. Joxemartin berriz, Pilar baino bi urte lehenago hil zen, 2006ko otsailaren 8an eta ordura arte etengabeko harremana edukitzen jarraitu zuten biek, sekulako maitasunezko sentimendua adierazi zigularik Pilarrek familiari bere heriotzaren aurrean.

Hiruen arteko harremanen sustraia, oso etxekoa, oso ataundarra, oso herrikoa, oso auzokoa zen, baita ikerketa, antropologia, erlijioa, unibertitate eta nazioartekoan errodua ere. Eta biek hala hirurek osatutako kate gehitze horretan, maixuak bere ikaslea maixu bihurtzen ikusi zuenean ere, harreman banaezina izaten jarraitu zutela jakina baita.

Denen gainetik, bada Joxemiel eta Joxemartinen ahozko harreman hauetan, hitz egin behar izan gabe ere, amankomunean sentitu, pentsatu eta erabiltzen duten berezko nolakotasun kontzeptual bat, euskara hizkuntzarena, hain zuzen ere. Biek zuten euskara kultura sistemaren odol-bide eta garai guztietako garraiorik egokiena bezala.

Joxemartinen lan honetan murgiltzeko orduan, hiru azpimarra egingo genizkioke irakurleari:

Lehenengoa, hamar urtetan zehar ahozkotasunean oinarrituta idatzitako lan honetan topatzen dugun datu bilketaren formatuaren antolaketaren ingurukoa litzateke. Hasieratik bukaeraraino, elkarrizketa bakoitzaren ahozko eta idatziko bilketaren tokia, urtea, hilabetea, eguna, ordua eta eraman dion denbora zehatz-mehatz jasotzen ditu Joxemartinek. Egia da, ohikoa dela data formatu hau aurkitzea, berak sinatzen zituen euskarri guztietan, izan liburu, artikulu, bideo hala argazkietan ere. Ez ezaguna eta ez ohikoa dena oraingo bere data formatuan zera da: zein ordutan hasi eta bukatzen den saioa bakoitza informatzea. Noski, ez dugu esango bakarria izan denik formatu hau erabiltzen, baina bai baieztatu dezakegula, miatu ditugun iturri guztietan ez dugula antzeko lekukotasunik aurkitu inon.

Bigarrena, azpiko taulan jasotzen denaren ingurukoa litzateke. Joxemartinek lan hau egiten pasatu zituen hamar urteetan zehar, batz bestea, 190 ordutik gora iraundako 127 elkarrizketa izan zituela Joxemiel Barandiaranekin zein bere izenean hirugarren pertsonekin. Lan honetako lekukotasun gehienak, Ataungo Sara etxean bildutakoak izan arren, badira Euskal Herriko beste toki batzuetan jasotakoak ere. Aipatu elkarrizketa kopuru horri, elkarrizketatuarengana hurbiltzeko egindako joan-etorritan batz besteko, bina ordu kalkulatu, 254 ordu kopurua gehitu beharko litzaioke lan honi. Ahozko ordu kopuruari, gehitu ezker Joxemartinek idazten (eskuz zein makinaz) sartuko zituen orduak, bederen kopuru hirukoitza aterako litzaioguke, hau da 570 ordutik gora. Ordu kopuru hauen batuketak guztira 843ren ordu egiten dute, eta horrek adierazi nahi du, Joxemartinek, idazketa lanak berezkoak dituen luzapen eta ustekabeak tarteko, duda izpirik gabe, hortik gorako ordu kopurua erabili behar izango zituela lan hau burutzerakoan.

1 Taula:*Ahozko eta idatzizko elkarrizketa eta ordu kopurua*

| Joxemartin Apalategi Begiristain (2018). Joxemiel Barandiaran eta biok. I-II liburuki. Donostia: Utriusque Vasconiae | | | | |
|---|------------------|---------|------------|---------|
| 10 URTE | 127 ELKARRIZKETA | | | |
| 1981-1991 | BIDAIAK | AHOZKOA | IDATZIZKOA | GUZTIRA |
| ORDU KOPURUA | 254 | 190 | 570 | 843 |

Iturria: (Jaione Apalategi, 2019)

Hirugarren oharra metodoari buruzkoa da. Giza eta gizarte zientzien metodoen sailkapenari erreparatuz, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan Harold Garfinkel soziologoaren eskutik sortutako etnometodologian kokatuko genuke lan hau. Jen-deak *egiten* duen horretan jarriko du arreta metodo honek, ordura arte indarrean zegoen Parsonsen estrukturalismo-funtzionalista metodoak ez bezala. Sailkapen honen kariatara, benetan interesgarria suertatzen da *Joxemiel Barandiaran eta biok* laneko lehenengo elkarrizketan, ikertzeko metodoaren inguruan bakoitzak egindako aukeren gainean hitz egiten dutena.

Etengabe eraikitzen, objetiboki birsortzen, berrantolatzen, ulergarri eta familiarra bihurtzen joaten den munduaren alderdi soziala deskribatzeko ahalegina egiten du etnometodologiak. Garkfielen ustez, auto antolaketa aldakor hau ez da gizarteetan diharduten egitura zehatz edo abstraktuetan sortzen, baizik eta biztanleek eguneroko bizitzan egiten dituzten ekintza praktikoen baizik: agurtzerakoan, eseri, entzun, gorputza mugitu, begiratu, isilik egon edo hitz egiterakoan, lanean, jaterakoan, telefonotik aritzerakoan, erosketak egiterakoan, etab. Horregatik defendatuko du, gizabanakoaren jokabide naturala dela ikerketaren abiapuntua, elkarreraginaren bitartez gauzatzen dena. Honen nolakotasuna dela aztertu beharrekoa, hor dagoelako jokoan, giza-egiturak ordezkatu, adostu, antolatu eta kudeatzeko araudiaren eta gaitasun eraldatzailearen iturri agorrezina.

Etnometodologiaren lau ikerketa motetatik: lan-praktikak, soziologia kognitiboa, talde analisisa eta *elkarrizketen azterketak* deiturikoetatik, Joxemartinek azkenekoa jorratuko zuen. Elkarrizketazaleen emaitzak doitzeko asmoz, adigai berriak sortzen joan dira etengabe, horietako bat litzatekelarik *alboko pare*a deiturikoa, zeinek, elkarrizketaren galde-erantzunak bikoteka antolatzeari ekiten dion, lehenengo hiztunaren ekoizpenak hartzailearen bigarren ekintza osagarri bihurtzen duen. Egitura hauxe bera atzeman daiteke Joxemartinek ekoiztutako elkarrizketa saio hauetan.

Baina, Joxemartinek ikerketa hau egiteko erabili zuen metodoa, etnometodologia deiturikoa zela badiogu ere, uste dugu, zuzenagoa litzatekela deitzea *etnometodologie-*

mozionala. Zergatik? Arestian esan dugun bezala, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen arteko adimen jite mota guztiak agerian geratzen direlako eta lorpen horretan, adimen emozionalaren laguntza ezinbestekoa izan zela ondorioztatzen dugulako.

Gure baieztapen honen jatorria, gaur egun oso onartua dagoen, Howard Gardner eta Daniel Golemanen lanetan oinarritutako adimen emozionalaren kontzeptu eta ezaugarrietan dago. Naiz eta bi teoriarrien abiapuntuak desberdinak izan, balioa eta morala alboratuko ditu erabat lehenengoak, eta ez hainbeste bigarrenak, adimen emozionalaren funtsezko ezaugarrietan adostasuna baitute.

- Gizakion buruak bi adimen motaren arteko elkarreraginen bidez jokatzen du, batak pentsatzeko eta besteak sentitzeko balio dutelarik.
- Garun arrazionalak pentsatzeko adimena erabiltzen du baina ez du erabakitzen zein emozio sentitu beharko genituzkeen. Emozioak oso indartsuak dira eta hauek menderatzea da adimen emozionala beraren zeregina.
- Haserreak, kezkek, etsialdiak, ezkortasunak eta bakardadeak garuna bahitzen duten indar handiko emozioak dira, eta bertara zergatik iritsi garenaren arrazoa ere ahaztu egin dezakegu, bi adimenen arteko zubia eraikitzen saiatuz aurkitu dezakegarik irtenbide orekagarria.
- Emozio negatiboak gizabanakoaren arreta xurgatzen dute. Aldez, bizitza emozionalaren kontrola eta bere subordinazioa objektu bakar bihurtzeko, funtsezkoa da arreta, motibazioa eta sormena suspertu eta mantentzeko balioa baitauka.
- Trebetasun emozionalak ongi garatuak dituzten pertsonak bere bizitzan eraginkorragoak izateko zoria dute.
- Egiatzko lorpenak ez daude hainbeste adimen arrazionalaren baitan, gure porrotei aurre egiteko gaitasunean baizik.
- Erabaki onak, pentsamenduak eta sentimenduak bat egiten dutenean ematen dira.

Irakurlearen esku utziko dugu, gogora ekarri ditugun adierazle emozional horiek topatzea lan zirrargarri honetan zehar.

Hamar urte luze iraun zuen elkarrizketa bilduma-ikerketa honen argitalpenak, garbi uzten du Joxemartinentzako ez zela batere erraza izan lan hau burutzea, ezta bere diseinu eta planifikazioaren adierazleak erabakitzea, ezta garapen prozesu luzeari eustea ere. Askotan ezintasunak edo desitxaropenak harrapatutako oihartzunen menpe ibili zela nabari da lanean, baita buruaren eta sentimenduaren arteko agindu kontrajarrietan kateatuta, gogoa eta ahalera ezin kudeatuz, norberarekin eta besteekin borroka amaiezin batean ere.

Zer da Joxemiel Barandiaran eta biok obra?

1934an, *Euskalerriko Lehen Gizona* liburuan Joxemiel Barandiaren euskal prehistoriaren sintesia argitaratzean lortu zuen. 1949an, Julio Caro Barojak *Los Vascos obran*, euskal historiaren sintesia egitea lortu zuen. Baina, euskal kulturaren sintesia falta zela egitea zion Joxemartinek eta horri ekin zion bere *Antropologia Berria. Ahozko Herri produkzioa. Ataungo Herria, auzoak, pertsona taldeak eta pertsonak* izeneko 1986ko doktore tesiarekin. Eta bide berekoa da 1991ean Joxemartinek bukatu eta argitaratu berria dugun *Joxemiel Barandiaran eta biok* lana. 2006an hil zen arte, jorratu zuen bide hori, burubelarri aldarrikatzen zuelarik ...gaurko ikerlari-pentsalarien zeregina zela euskal kulturaren sintesia eraikitzea, biharko euskaldungoak begiratu duena, kritikoki hartuz nola egokia hala desegokia kontsideratzeko erreferente bihurtuaz...

Zer ausardi itsua zuen tipo honek!, esan dezake norbaitek. Baina orduan, Joxemartinek beste hau esanez erantzuten dio bere buruaren ausardiari: *horrenbestetxe beste kultura konkretuei baita ere gertatzen zaie*. Ez dela lanbide erraza, baina, saiatzea zilegi dela, baldin eta bi baldintza betetzeko ahalak ematen badira, esaten digu: 1) gauzak diren bezala ezagutu; 2) eta ezagutzen ditugunean norakoitasun batetik ezagutzen ditugula ohartu izanik, hau ezagutzetik *ezagupen orokorrera* irits gintezkeela eta ailegatu behar garela helburutzat eduki.

Zer da lortu duena? Denborak erakutsiko du egindako lanaren lorpena zenbaterainokoa izan den, noski. Euskal kulturaren jakitun direnen balorazioak helduko direnean, hain zuzen. Baina, idatzitako testua baloratzekoan ondoko hauek kontutan izan beharko dituzte. Batetik, humanoak/gizatiarrak?, esentzialki animalia sozialak gara (zoom politikon, zioen Aristotelesek). Eta horren ondorioz, gure iraupena eta erreprodukzioa, humanoen arteko kooperazio sozialak eragiten dituela. Bestetik, naturako gaineratiko animaliek ez bezala, humanoak, berak bakarrik, erakutsi duela *fikzionatzeko* ahalak dauzkala, eta horri esker bizitzaren zailtasunen aurrean, ezinbestean aurkitzean ere, irtenbideak imajinatzea lortzen duela, eta ondorioz baita ere kolektiboki jardunaz errealitate berriak sortzera igarotzeko lain dela. Horietarik gera ere nonbait aberats Ataundarrok, besteak beste, mitoak, kontu-zaharrak, eta abar bezalako produktu kulturalak sortzeagatik. Baina, mitoak diodanean kontuz, ez naiz ari antropologoek horrelakotzat kontsideraturik dauzkatenetaz bakarrik. Areagora doa gure fikziozko lorpena. Eskala haundiko kooperazio humano oro imajinario amankomunetik at existentziarik ez duten mito konpartituetan errotzen baita. Horren adibideak dira, besteak beste, Estatu Modernoak (mito nazional amankomunetan errotzen dira guztiak), Erdi Aroko Eleiza, Antzinateko Hiriak, edo Tribu Arkaikoak. Guzti horiei eta antzekoei, izaki humanoen imajinazio amankomunetik baitatorkie euren existentzia. “Eskubideak berak”, legelarien fikzioak dira. Alegia, ez daukate existentzia materialik fikzionatuak izan aurretik.



*Barandiaran eta Apalategi Sara Etxean, Ataunen, 1981ean.
© Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa*

Bidenabar ere, adierazi nahi dugu *kultur ekimenak* kontzeptuaren hedadura, antropologoarentzat oso zabala eta aberatsa dela. Humanoeak, naturako beste animaliak ez bezala, ingurugiroaren presiopean aurkitu izan garenean aldaketa genetikoak eragin baititugu, edo kolektiboki eraikitako egitura sozialak altxatu ditugu, edo eta teknika berrien inbentzioak egin baititugu, behin eta berriz, eta horrela jardutean gure historian, egoera ustelduak errekonponitzeko/birsortzeko? ahala erakutsi izan dugu, eta horrekin, aldian aldiko humanoen beharrei erantzun diegula ere barruan baidarama kontzeptu horrek. Barandiaranek lauogeita hamar urte pasatuak zeuzkan elkarrizketa hauek burutu zirenean.

Adinarekin agertzen doatzen desgasteen ondorioz ikerle aberats izandakoaren egunerokoan kudeaketa eta organizazioa eskasten zoatzen. Hala ere, burua oraindik argi zeukan baina ezin zen nahi zuen gutzira lehen bezala bakarrik ailegatu. Haren mobilitate fisikoa bereziki kamusten zioan. Adinak ez du barkatzen! Orduan, halako batean, Joxemartini laguntza eskatzen dio, eta horrekin haren izenean eragiteko hainbat interbentziotarako baimenak jasotzen ditu. Elkarrizketetan garbi ageri da Joxemartinek jasotako mandatuen kudeaketa leiala eta zintzoa egiten duela. Egindako guztiaren berri ematen dio Joxemiel Barandiarani eta aurrera begira hartu beharrezko erabakiak elkarrekin hitzeginez hartzen dituzte. Irakurlea, guzti honen jakitun egonda, ezin da ezkutatuta edo lotsatuta gelditu behar bien arteko ahuleziak somatzean dituenen. Bidenabar, alde baidarra ere agerrarzaten dituztelako, adibidez, gizakiaren lur honetako destinauz ordura arte Joxemiel Barandiaranek, gorderik zeuzken balorazioetaz egindako aitorten bat edo beste nabarmentzekoak dira.

Balio psikologiko handia duen testu historiko baten aitzinean ere bagaude. Lan honek, adierazten diguna da, gizarteak eta horren barne gizakiak, hiru dimentsioz determinatuak gaudela, hots, igaroaz, egungoaz eta gerokoaz, guztiak, ñabardura batez osatuta, alegia, unean unekoak sortzen dituen baldintzak, aldian aldirako, erabateko botere eraginkorra ukan dezaketela gure bizitzako portaeretan, eta guregan eragiten ari diren igarora eta geroa menpean hartzeraino ailegatuz. Joxemiel Barandiaranen kasuan, euskal kulturaren igaroaz hainbat ezagutza lortutako ikerle arrakastatsuak garbi dauka gizakia-ri joritasuna egungoarekin osotasunez lotuta bizitzetik datorkiola ala ez duela horrenik ukango. Gutxitan hori hain argi eta garbi erakusten den testurik argitaratu izan da euskaraz. Eskerrik beroenak bada bi protagonistei!

Jaione Apalategi eta Jokin Apalategi
Iruña-Angelu, 2019ko martxoaren 23an